

Txostena

Informe

**Euskal Autonomia Erkidegoaren
Teknologia Parkeak**

**Parques Tecnológicos de la
Comunidad Autónoma de Euskadi**



**Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia**

**Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas**



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURKIBIDEA/ÍNDICE

SARRERA.....	3
ONDORIOAK.....	5
INTRODUCCIÓN.....	30
CONCLUSIONES	32
ANEXOS	58
A.1 Balances y Cuentas de Resultados	58
A.2 Empresas Calificadas como de Actividades Complementarias	64
A.3 Empresas que han salido de los Parques	65
A.4 Superficies de los Parques.....	67

Vitoria-Gasteiz, 2003eko urriaren 22a

Vitoria-Gasteiz, a 22 de octubre de 2003



SARRERA

LANAREN ZABALA

Autonomia Erkidegoaren Teknologia Parkeei buruzko txosten hau Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legeari jarraiki mamitu dugu eta 2002ko ekaina - 2003ko maiatza bitarteko Urteko Lan Programan dago jaso, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hala eskatuta.

Lanaren mamia aipatutako Batzordeak egindako 8 galderari erantzuteko beharrezko informazioa eskuratzea izan da; hona hemen:

1. EAEko Teknologia Parkeen finantza egoera, gaur egungoa eta bilakaera; baita, aukerako egoera ezberdinen arabera hautatutako finantza politiken baloraketa ere.
2. Autonomia Erkidegoa den bezain lurralde esparru mugatuan hiru teknologia parke existitzeko dagoen beharrari buruzko balorazio ekonomikoa, arrazionaltasuna abiaburu hartuta.
3. Parkeak espezializatzeko ahalegina behar hainbatekoa den edota, aldiz, helburu hau indar handiagoz zuzkitu behar ote litzatekeen, aginte ofizialek hitzetik hortzera ahotan hartua duten gaia.
4. Enpresek parkeetako enpresa-mintegietan egin ohi duten batez besteko egonaldia aztertu, horretarako erabiltzen diren irizpideak -kasua denean-, eta horien betetze maila.
5. Parkeen sorreran aurreikusiak dauden Ikerketa, Garapen edo Berrikuntza parametroak zenbat enpresek betetzen dituzten aztertu, zenbatek ez, zeintzuk diren horiek eta bertan egoteko arrazoiak.
6. Enpresen errotazio maila aztertu: zenbat kanporatu diren parkeetatik, batez besteko errotazio horren abiadura, izenak eta parkeetatik irteteko arrazoiak.
7. Parkeen tamainaren ebaluaketa, bestelako parke nazional eta nazioartekoaren aldean.
8. Hasiera-hasieran parkeei atxikitako helburuen betetze maila, ezbetetzeak azalduz.

Hiru parkeak kudeatzen dituzten sozietateen auditoretzako txostenak eta kanpoko aholkulariek mamitutako kudeaketa jarraipenerako txostenak aztertu ditugu. Halaber, hiru parkeen zuzendaritzari egoki iritzitako informazio osagarri guztia eskatu diogu. Datuen azterketak azken 5 urtealdiak izan ditu aztergai, parkeen bilakaera ekonomiko eta finantzarioaren azterketarako behar hainbatekoa iritzi baitiogu epe horri; gainera, hiru parkeak jardunean aritu diren aldia besarkatzen du. Honek ez du, ordea, parke bakoitza sortu zenez geroztiko datuak eskatzea atzendu. Erabili ditugun azken datuak 2001eko abenduaren 31ri dagozkionak dira.

PARKEEN DEFINIZIOA ETA TITULARITATEA

International Association of Scientific Parks (IASP) delakoak emandako definizioaren arabera "Teknologia Parkea profesional adituek kudeatutako organizazioa da; helburu nagusia komunitatearen aberastasuna areagotzea du, parkean kokatu diren edo parkeari lotuak

dauden eta ezagutzaren ekoizle diren enpresa eta erakundeen berrikuntza eta lehiakortasunaren kultura sustatuz. Helburu hau tarte, Teknologia Parkeak indartu eta kudeatu egiten du ezagutza eta teknologia fluxua unibertsitate, ikerketa erakunde, enpresa eta merkatuen artean; enpresa berritzaileen sorrera eta hazkuntza sustatzen du, inkubazio eta sorketa zentrifugoko baliabideen bitartez (spin-off) eta balio erantsiko beste zerbitzu batzuk ematen ditu, espazioa eta kalitate handiko instalakuntzez gain”.

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan hiru teknologia parke existitzen dira, hiruak ere Espainiako Teknologia Parkeen Elkarteko (APTE) zein IASPEko kide; hauen xede soziala, batik bat, enpresa ekimena eta inbertsioa indartu eta sustatzea da, azpiegiturak eraikiz kalitatezko ingurua sortzeko, berritzaileak diren eta teknologia jaso duten enpresen kokapen eskakizunak bideratuko dituena.

1985ean Teknologia Parkea, SA sozietatea sortu zen (PTZ), Zamudioko teknologia parkea sustatu, urbanizatu eta kudeatzeko ardura zekarrena; bertan ezarri ziren lehenengo enpresak 1990ean. 1992an Arabako Teknologia Parkea, SA (PTA) eratu zen, Miñanon, Gasteizko udalerrian eta lehenengo enpresak 1995ean bildu ziren bertara. Azkenik, 1994an Donostiako Teknologia Parkea sortu zen, SA-Donostiako Teknologi Elkartea, AB (PTSS) izenarekin, Miramongo Parkearen azalera zati bat ustiatzeko. Lehenengo enpresa 1997an ezarri zen bertan. Parke honen lursailak, beste biak ez bezala, guztiz urbanizatuak hartu zituzten.

Hiru parkeetan sortu zirenez geroztik gehiengo akzioduna Industri Sustapen eta Birmoldaketarako Sozietatea, SA (SPRI) da.

Hona hemen 2001eko abenduaren 31n zeintzuk diren parkeetako kideak eta bakoitzean duten partaidetzaren ehunekoa:

Kidea	PTA	PTZ	PTSS
SPRI.....	%55,7	%74,9	%52,9
Araba Garapen Agentzia,SA.....	%42,2	-	-
Bizkaiko Foru Aldundia.....	-	%24,5	-
Gipuzkoako Foru Aldundia.....	-	-	%19,8
Gasteizko Udala.....	%2,1	-	-
Donostiako Udala.....	-	-	%5,3
Zamudioko Udala.....	-	%0,6	-
Kutxa Fundazioa.....	-	-	%22,0

Hiru parkeen presidentzia pertsona batek berak du, horien egitekoak koordinatzeko ardura duen teknologia parkeen euskal sarea osatu delarik.



ONDORIOAK

Atal honetan Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak egindako 8 galderei erantzun emango diegu.

1. EAEko Teknologia Parkeen finantza egoera, gaur egungoa eta bilakaera; baita, aukerako egoera ezberdinen arabera hautatutako finantza politiken baloraketa ere.

2001eko abenduaren 31n parke bakoitzaren egoera ekonomiko eta finantzarioa guztiz bestelakoa da:

- PTZk egoera osasuntsua du, zorpetzerik gabea eta emaitza positibokoa azken hiru urtealdietan.
- PTAk ez du apenas zorpetzerik, baina azken bost urtealdietan eskuratu dituen emaitzak negatiboak izan dira, 1999az geroztik milioi eurotik gorako galerak izanik. Hauetatik ia guztiak urtero amortizazio fondora egiten den zuzkidurari zor zaizkio.
- PTSSk zorpetze ertaina/baxua du eta 1999az geroztik mozkinak eskuratu ditu; honenbestez, egoera erlatiboki sendotua duela esan dezakegu.

Egoera hau, hein batean behintzat, parkeen antzinatasunak eragiten du, izan ere, bai PTAn, bai PTSSn ere, 10 urtetik beherakoa baita eta haxe da ezaugarri hauetako proiektu bat gorpuzteko beharrezkotzat jotzen den aldia.

a) Eskuratutako fondoen jatorria eta erabilera.

Hona hemen sozietate bakoitzak sortu zenetik eskuratutako fondoen jatorria eta horien norakoa:

	Mila €							
	PTSS		PTA		PTZ		GUZTIRA	
Jatorria	44.847	%100	35.051	%100	99.125	%100	179.023	%100
Bazkideen ekarpenak	32.659	%73	24.059	%69	72.939	%73	129.657	%72
Epe luzera geroratutako sarr....	0	-	60	-	0	-	60	-
Epe luzeko zorrak.....	2.386	%5	240	%1	0	%0	2.626	%2
Epe luzeko bermeak	174	-	78	-	547	%1	799	-
Ibilgetuaren salmentak	9.628	%22	10.614	%30	25.639	%26	45.881	%26
Aplikazioak	44.847	%100	35.051	%100	99.125	%100	179.023	%100
Ibilgetua.....	39.029	%87	28.571	%81	89.058	%90	156.658	%87
Epe luzeko zordunak.....	2.548	%6	902	%3	108	%0	3.558	%2
Maniobra fondoak	2.140	%5	1.088	%3	3.420	%3	6.648	%4
Jardueraren ballabideak.....	1.130	%2	4.490	%13	6.539	%7	12.159	%7

Finantzaketa iturri nagusiena bazkideek egindako ekarpenak izan dira (%72).




Hiru parkeak alderatzen baditugu, ikus daiteke PTA, proportzionalki beste bi parkeak baino bazkideen baliabide gutxiagorekin finantzatu dela eta ments hau berdintzeko, ibilgetu salmenta handiagoa gauzatu duela. Honen aldean PTSSk, berriz, inbertsioak finantzatzeko nolabaiteko zorpetzeari eutsi dio, orain arte egin dituen salmenta txikiagoak konpentsatzen dituela.

PTZri bagozkio, esan behar dugu 1997ko urte hasieran, 19,8 milioi €tik gorako zorpetzea zuela, aurrez amortizatu direlarik, harik eta 2000ko urtean oso-osorik desagertu den arte.

Fondoen %80 baino gehiago ibilgetua erosteko erabili da. Parke bakoitzak ibilgetuan egindako inbertsioa ehunekotan adierazita, ondokoa da:

INBERTSIO BANAKETA IBILGETUAN



Parkeek egindako inbertsioaren norakoan alde handienak sortzen dira alokatzeko eraikinen eta euren erabilerarako higiezinaren proportzioan (euren bulegoak, aretoak, auditorioa eta kafetegia eraikin nagusian).

PTZk, berriz, higiezinetan egin duen inbertsioa txikiagoa izatearen arrazoia da parkeak tamaina handiagoa duela eta honenbestez, zerbitzu komunitarako azalera handiagotzeko beharrik ez dagoela, batetik; eta bestetik, instalakuntza hauek duten antzinasuna.

Alokatzeko higiezienei dagokienez, bereziki adierazgarria da PTAREN egoera, inbertsioaren %22 baizik ez baitu honetarako erabili, PTZren %39aren aldean.



b) Emaitzen azterketa eta bilakaera.


Ondotik, hiru parkeen emaitzaren bilakaera erakutsiko dugu, higiezin eta lursailen salmentaren ondorioz eskuratu direnak (Salmenten Marjina Gordina), gainerako gastu-sarreretatik bereiziz. Era honetara, Ustiaketa Marjinak bulego eta aretoen alokairutik eskuratutako sarrerak ezezik, gainerako ustiaketa gastuak ere besarkatzen ditu, hala nola, langileria, amortizazio eta mantentze lanetakoak.

Bai PTZn, bai PTSSn azken hiru urtealdietako emaitza positiboen jatorria hauetan dago:

- Ustiaketako galeren murrizketa, alokairuetan sarrerek izandako igoaldien ondorioz; hauek PTZn 1998 eta 1999 bitartean %62 igo ziren, eta PTSSn berriz, 1999an bikoiztu egin ziren.
- Lursail eta bulego salmenten igoera, izan ere, PTZn 2000 eta 2001ean 1998an baino lau aldiz handiagoak izan baitziren.

PTSS EMAITZEN BILAKAERA


Mila e





PTZ EMAITZEN BILAKAERA


Mila €



PTAk guztiz bestelako bilakaera izan du: ustiaketa galerak goranzkoak izan dira 1999ra arte eta ibilgetuaren salmentak eragindako mozkinak 600 mila €tik beherakoak aldi guztian zehar, egindako lursail salmentek 2000ko urtean PTSSk egindakoen %53 baizik ez zuten egin. Ustiaketak izandako emaitza negatiboak 1999ra arte, hau barne, gastu orokor altuak izatearen ondorio dira, data horretatik aurrera %25etik gora murriztu direnak, nahiz parkearen tamaina handitu, saldu gabeko lursail guztien urbanizazio lanak amortizatzen zuzkidura egin eta bestetik, alokatzeko higiezinak urriegiak izan, aurreko idatz zatian azaldu dugun moduan.

PTA EMAITZEN BILAKAERA


Mila €



Atal honetan 1998ra arte PTZk bizi izan zuen egoera aipatu behar dugu, 22,8 milioi eurokoak baino pilatutako galera handiagoak izanik, Kapital Sozialaren %31 egiten zuena. Egoera hau 2000ko urtean zuzendu zen pilatutako galerak konpentsatzeko kapital murrizketa bitartez.

Eragiketa hau bera egin dute PTAn, nahiz eta konpentsatu behar izan diren galerak PTZrenak baino txikiagoak izan diren. 2001eko urtean 2,4 milioi euro konpentsatu ditu, Kapitalaren %10 egiten zuena. PTSSk ere eragiketa bera egin du, baina 653 mila €koa soilik.

Finantzaren errentagarritasunak, urtealdiaren emaitza zati kideek egindako ekarpenak moldearekin kalkulatu, hiru parkeen emaitzen bilakaera alderatzeko bide ematen du. Bai PTZk bai PTSSk eskuratutako errentagarritasunek guztiz antzeko joera izan dute, 2001eko urtean PTZ %2,8ra iritsi arte. Aldiz, PTAREN errentagarritasuna negatiboa izan da beti, azken biurtekoan hobekuntza txiki bat egin duela.



Baiezta dezakegu kideen ekarpenak zorpetzearekin ordezkatzek ez lukeela sozietateen errentagarritasuna hobetuko, indarreko interes tipoak eskuratutakoaren gaintik baitzeuden. Azken 5 urte hauetako joerak hala jarraituz gero, ordea, datozen urtealdietan nolabaiteko moteltze finantzarioa gerta liteke, gogoan izanda 2002ko urte amaieran EURIBORa %2,87koa izan dela.




c) Parkeen autofinantzaketa eta likideziaren azterketa.

Parkeek autofinantzatzeko duten gaitasuna Cash Flow Operatiboaren bitartez balio-neurtu dezakegu, irabazia ken aparteko emaitzak, gehi amortizazioa modura kalkulatu.

CASH FLOW OPERATIBOA

Mila €



1999az geroztik PTZk baliabide bolumen handia sortu du, salmenten igoerari eta alokairura emandako higiezinaren %90etik gorako okupazioari esker; honek inbertsio berriei aurre egiteko bide eman dezake, hirugarrenen finantzaketara jo beharrik izan gabe.


PTSSk autofinantzaketa ere sortzen du, ez, ordea, 2002tik 2005erako aldi egin asmo dituen inbertsio guztiei -23 milioi €- kanpoko babesik gabe aurre egiteko behar bestekoa.

Maniobra Fondoak likidezia epe laburrera islatzen du. 2001eko abenduaren 31n hiru parkeek Maniobra Fondo positiboa zeukaten, nahiz PTAkoak hiru urte daramatzen murrizten, egin dituen etengabeko kapital zabalketak zabalketa. Honen aldean, PTZk maniobra fondoa 4 milioi €tik gora handitu du azken bi urteotan, inongo kapital handitzerik egin ez duen arren eta bere inbertsio politikari eutsi dion arren. PTSSk 2001eko urtealdian fondoa murriztu badu ere, dezenteko maila jasoari eusten dio.



MANIOBRA FONDOA

Mila €



Esan beharra dago hiru parkeetan Maniobra Fondoa kontu korronteetan gauzatu dagoela, EURIBORen %90arekin ordaintzen direnak. PTSSn, berriz, 3,4 milioi €tik gorako zorpetzea izan da, kontu korronte honetan batez besteko saldoa 3,5 milioi €tik gorakoa izan delarik. Egoera honek halaxe iraun du bai 2000n, bai 2001ean. Zorpetze hau kreditu kontuan jaso izan balitz, horren erabilera parkearen egiazko beharizanetara egokitzea bideratuko zukeen.

d) Finantzaketarako aukerak.

Estatuko 5 parkeetan jarraitu diren finantzaketa moldeak, tamaina eta antzinasunari dagokionez EAEkoekin alderagarri direnak, hitz labur, honako hauek izan dira:

- Ibilgetua administrazioaren eskutan mantentzea, parkea kudeatu baizik egingo ez duen sozietatea sortuz (Cartuja-93, Galiziako Teknologia Parkea).
- Bazkideen ekarpenen eta epe luzeko zorpetzearen konbinaketa. (Vallésko Teknologia Parkea, Boecilloko Teknologia Parkea).
- Dirulaguntzak ematea, bai arruntak ustiaketaaren defizitak arintzeko, baita kapitalezkoak ere urbanizazio eta eraikinen eraikuntza kostuak murrizteko (Boecilloko Teknologia Parkea, Galiziako Teknologia Parkea).

EAEko parkeek ikusi dugun legez hautatu duten finantzaketa moldea izan da nagusiki bazkideen ekarpenetan oinarritzen den hura, salbuespen izan direlarik PTZ, hau epe luzeko dirubideen %37ren pareko zorpetzea izatera heldu baitzen, eta PTSS, 2001eko abenduaren 31n %7 inguruko zorpetzea duena.



Dirulaguntzei dagokienez, azpimarratu behar da EA Eren hiru parkeek eskuratu dituztenak oso urriak izan direla eta inoiz ez direla euren bazkideetatik etorri.

Gure ustez parkeen finantzaketarako politika zuzena da, nahiz etorkizunean egokia izan daitekeen interes tipo baxuak gogoan izanda, bazkideen ekarpenak epe luzeko zorpetzearekin konbinatzea.

2. Arrazionaltasuna ikuspuntutzat hartuta, euskalduna dugun bezain autonomia erkidego txiki batentzat hiru teknologia parke existitzeko dagoen beharraren baloraketa.


Adierazi behar dugu lehenengo parkea Zamudion kokatu zela eta hazteko aukerak zirela jada sortutako parkea garatzea, edota beste parke berri batzuk garatzea; eta halaxe egin zen eta horixe da gainerako autonomia erkidegoek darraien estrategia.

Hiru parke bereizi ezartzeak eskala ekonomiak galtzea dakar, parke bakar bat garatzearen aldean; aldiz, enpresak instalatzea ere errazten du, eskaintza areagotu egiten baita. Ildo honetan esan behar dugu, 2001eko amaieran okupazioak hiru parkeen artean, Zamudiokoaren egungo edukiera gainditu duela (ikus A.4 eranskina).

a) Parkeen okupazio maila.

Ondoko grafikoak erakusten du zein bilakaera izan duen lursailen urbanizazioak eta horren okupazioak hiru parkeen multzoan, bertako eraikinekin, zein kanpokoekin.

OKUPAZIOAREN BILAKAERA





Aztertu dugun aldiaren zehar parkeetan eraikinez okupatutako azalera urbanizatua nabarmen hazi da. Honela, bada, 1999az geroztik lursailen okupazioa 1996an urbanizatutako azalera baino handiagoa da. Urbanizagarri den azalera guztiaren gaineko okupazio portzentajea, azken 5 urteotan %33 izatetik %66 izatera aldatu da.

Hiru parkeetan urbanizatu eta okupatutako egungo azalera Donostia eta Zamudioko parkeen urbanizazio gaitasuna gainditzen du; honek erakusten du, gutxienez, EAEn tipo eta tamaina honetako parkeen behar hainbateko demanda dagoela. Halaber, azpimarratu behar da, urbanizatutako azalera lursailen okupazio erritmoa egokitzeko gaitasuna, 2001ean %58 eta %75 bitartekoa izanik.

b) Parkeen kudeaketa gastuak.

Parke bakoitza ustiatzeko gastuak hiru kontzeptu nagusitan zati-bana daitezke:

- Jabe bakoitzari eragiten zaizkion parke bakoitzaren instalakuntza eta zerbitzu orokorren mantentze eta zaintzari dagozkion gastuak. PTAn gastu hauek Hirigintzako Entitate batek kudeatzen ditu, jabe bakoitzari bere lursailari dagozkion gastuak eragiten dizkiola. PTZn gastu hauek eurak parkeak berak kudeatu eta eragiten dizkie jabeei. Azkenik, PTSSn, gastu hauek ez dira adierazgarriak, izan ere, bideak eta zona komunak udalaren jabetzakoak baitira eta mantentze gastuak ere udalak bere gain hartzen baititu.
- Alokaturako eraikinen mantentze eta zaintzari dagozkion gastuak eta parkean kokatutako enpresa guztiei emandako zerbitzuei dagozkienak. Kostu hauetatik, lehenengoak normalki errentariei eragiten zaizkie, batzuetan alokairu kontratuan zehaztutako hileroko zenbateko baten arabera, eta beste batzuetan, egiazko kostuaren arabera; bigarrenak, berriz, parkeak beretzen ditu enpresei emandako zerbitzu modura.
- Parke bakoitzaren sozietate kudeatzailearen egiturari dagozkion gastuak, bidai gastuak, publizitatea, kanpoko aholkularitzak eta bulego eta prestakuntza gastuak besarkatzen dituztenak.

Hiru parkeen kostuak alderatzen saiatzeko, PTZtik lehenengo multzoari dagozkionak kendu ditugu, lursailen jabeei eragindakoak eta honenbestez, berreskuratu eta sarrera modura kontuataratuak.

	Mila €		
	PTA	PTSS	PTZ
Gastu orokorrak eta mantenu gastuak	512	482	1.067
Aseguruak eta zergak.....	87	50	119
Sozietatea kudeatzeko gastuak.....	219	276	596
Apartekoak	0	0	261
Errentarien gastuak berreskuratzea	(76)	(161)	(410)
GUZTIRA	742	647	1.633



Lehenengo bi kontzeptuak oinarrian aldakorrek dira parke bakoitzaren azaleraren arabera, nahiz beste aldaki batzuek ere eragina izan dezaketen, bakoitzaren antzintasuna esaterako, edo baita udal bakoitzaren politika fiskala ere.

Zamudioko kudeaketa gastuek parke-sarearen lehendakaritzari dagozkion gastuak ere barne hartzen dituzte.

Aparteko gastu modura aldi baterako PTZri lagatako lursailetan aparkaleku bat eraikitzeak kostua barne hartu da eta honenbestez, ez dira ibilgetu handi modura jaso.

Parke bakar bat mantendu ordez, hiru parke mantentzeak eragindako gehiengo kostu osagarria balioetsi dezakegu tamainaz txikien diren bi parkeen kudeaketa kostuak hartuta; honek 495 mila € egiten ditu, gastu garbi guztien %16aren pareko dena.

Hona hemen izan diren langile gastuak:

	PTA	PTSS	PTZ	GUZTIRA
Langile gastuak (mila e).....	292	380	634	1.306
Batez besteko pertsona kopur..	6	9	12	27

Datu hauek Estatuko beste 5 parkeko datuekin konparatuz gero, langileen batez besteko kopurua 9 eta 21 langile bitartekoa dela ikusi dugu eta kostua 362 eta 1.048 mila eurokoa, nahiz eta ez duten lotura zuzenik parkeen tamainarekin. Ondorendu dezakegu, parke bakar baten aldeko aukera egin izanez gero, beharrezko izango zatekeen langile kopurua hiru parkeetako langileen batura baino zertxobait txikiagoa izango litzatekeela, egungo egiturak hainbat lanpostu bikoiztea eragiten baitu. Nolanahi ere, tamainaz handiagotzeak ere, egungo egoerarekiko, langileria tekniko eta administratiboa ugaritzea ekarriko luke. Honenbestez, balizko aurrezki hau pertsona bat eta sei pertsona bitartean ezarri genezake.

IASPen azken inkestaren arabera, asoziatutako parkeen %13k 20 langiletik gora dituzte eta Araba eta Zamudioko parkeak parke handi modura sailkatuak daudenez gero (ikus 7 zk.ko galderari emandako erantzuna), 21 langileko kopurua arrazoizko gutxienekoa litzateke egungo hiru parkeen tamaina hartzen duen parke baterako. Areago esan daiteke, PTA eta PTZaren egungo langile egitura urria dela antzeko beste parke batzuen aldean. Nolanahi ere, egitura hauek parke bakoitzeko zerbitzuen azpikontratazio mailaren baitakoak dira.

Kostuari bagagozkio, baldintza hauetan gehiengo aurrezkiak 258 mila eurokoa izango litzateke, EAEn hiru parkeen kostua eta Estatu mailan kosturik handienekoaren arteko diferentzia modura neurtuta.

Geografikoki bereizirik hiru parketan zati-banatua egoteak, 753 mila euroko kostua eragin dezakeenak, dirusarrera handiagoak ere ekarriko lituzke, eskaintzaren ezaugarriak hobetzearekin enpresa gehiago erakartzen direlako. Eta hau hala da, batik bat, lurraldetasunagatik, enpresen eskarrietara egokitzeko bide ematen duelako. Norabide honi jarraiki ari dira zuzentzen euren estrategiak hainbat autonomia erkidego, Katalunia, Madril edo Galizia esaterako, 7 zk.ko galderari emandako erantzunean aipatu bezalaxe.

3. Parkeak berariaz gaitzeko ahalegina behar hainbatekoa den aztertu, edo aldiz, indar handiagoz zuzkitu behar den, aginte ofizialetatik behin eta berriz aipatzen dena.

Industri Politikan Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Esparru Orokorrak 1996tik 1999ra bitarteko aldirako ezarria zuen parkeen helburuen artean “hiru Teknologia Parkeak koordina zitezela elkarren osagarri izateko bidean aurrera egiteko, bakoitza teknologia alor ezberdinetara zuzenduz”; gerora, ordea, ez 2000tik 2003ko aldirako Politika Ekonomikoaren Erakunde arteko Planak, ez 2001etik 2004rako Zientzia eta Teknologiaren Planak ere, ez dute parke bakoitza berariaz gaitzeko helburu hau aipatzen.

Nolanahi ere, parke bakoitzaren jatorri eta giroak parke bakoitzean sektore jakin batek buru egitea ekarri du. Honela, bada, PTZn Informazio eta komunikazioaren teknologiek (TIC) aeronautikarekin batera parkearen %50 baino gehiago besarkatzen dute. PTAn sektore aeronautikoa da nagusi eta PTSSn, berriz, elektronikak eta TICek dute burutza.

Parke bakoitza berariazko sektorearen batean gaitzen ari den aztertzeke, parkeetan dauden enpresak jardunbide sektorearen arabera sailkatu ditugu eta parkeak kudeatzen dituzten sozietateek urtero egiten dituzten inkestetatik eskuratu ditugu enplegatutako langileen datuak. Adierazi beharra dago hainbat enpresa eta agente teknologikok sektore batean baino gehiagotan sailka daitezkeen jarduerak burutzen dituztela; kasu hauek guztiak sektore adierazgarrienean sartu ditugu.

Enpresa kopuruaren arabera, hiru parkeetan TICekin lotura dutenak nagusitzen dira, parkeen guztizkoaren %41a egiten dutenak. PTSSn enpresa hauek instalatuak dauden %53 baino gehiago egiten dute, PTZn, berriz, %39 eta PTAn %38. Bigarren tokian, bai PTZn, bai PTAn injinerutzako enpresak ditugu, hurrenez hurren %14 eta %20 egiten dutenak; PTSSn, berriz, beste sektoreetatik inork ere ez du enpresa kopuru adierazgarririk.

Sektore bakoitzean enplegatutako pertsona kopurua aztergai hartuta, ikusiko dugu sailkapen honetan aldaketarik badela. PTZn eta PTSSn, TICen sektorearen nagusitza areagotu egiten da, parke bakoitzaren %50 eta %64 eginez. PTAn, berriz, sektore nagusia aeronautikoa da, bertako langileen %46k diharduelarik horretan. Bigarren tokia, TICek betetzen dute PTAn eta PTZn, berriz, sektore aeronautikoak, kasu bietan ere, parke bakoitzean lan egiten duen langileriaren %20ak diharduelarik. PTSSn bigarren toki honetan energia eta ingurumenaren sektorea daukagu %12arekin.

Nahiz datu hauek parke bakoitzaren espezializazioaren adierazgarri diren, lehenengo kasuan ez da enpresaren tamaina balio-neurtzen eta bigarrean, berriz, alderatu ez ditugun inkestetatik datoz; gainera, ez ditu gogoan hartzen lursailak erosi eta eraikinak eraiki ez dituzten enpresak. Honegatik guztiagatik, parke bakoitzean sektore bakoitzari emandako azaleraren egoera mamitu dugu, bai okupatutako sabaiaren arabera, baita 2001eko abenduaren 31n saldutako eta eraiki gabeko azalerarena ere.

PTZ, saldu eta alokatutako azaleraren arabera, zein okupatutako azaleraren arabera, bi sektoretan biltzen da: Informazio eta komunikazio teknologiak, parkearen azalera osoaren




%35 eta %40 eginez, eta aeronautikaren sektorea, %27arekin; hauek nabarmen dira bi sektore adierazgarrienak. Hurrengo sektoreak, elektronikarenak, ez du %10a egiten.

PTAn buru egiten duen sektorea, lehen bezala, aeronautikoa da, azaleraren %50 beretzen duela. Bigarren sektorean energia eta ingurumena dugu %11rekin; gogoan hartuz gero, ordea, salduta dauden eraiki gabeko lursailak, elektronikaren sektoreak hartzen du bigarren toki hau %13arekin. TICen sektoreak azaleraren %10 baizik ez du hartzen.

PTSSri dagokionez, bi zehaztapen egin behar ditugu; batetik, parkeko enpresatzat hartu ditugu PTSSk saldutako lursailetan edo alokatutako bulegoetan instalatutako haiek; eta bestetik, saldutako azalera eraikigarria eta eraikitzeko dagoenak egiaz okupatutakoa gainditzen duela. Honen arabera, sektore nagusia TICena da, eraikitako sabaiak %34 hartzen duela, energiarenak darraio %24arekin, eta bi zerbitzu antolamenduek osatutako talde batek atzetik, %20 hartzen duenak. Ordea, saldutako lursail guztiak gogoan hartzen baditugu, TICen sektorea dugu %29arekin, eta elektronikarena %26arekin buru egiten dutenak. Medizinen eta energiaren sektoreak %11 inguruko tokia hartzen dute.



SALDU ETA ALOKATUTAKO SEKTOREEN ARABERAKO BANAKETA



Amaitzeko esan behar dugu, TICaren sektoreari dagokionez, parke bakoitzaren orientabidea zertxobait ezberdina dela eta zenbaitetan enpresa hauen azpisektorean bereizketa argia egitea nekeza bada ere, ikusten da bai PTA, bai PTSS informatikan zentratuagoak daudela, eta PTZn, berriz, telekomunikazioek hartzen dute burutza.

Parkeen dinamikak berak horietan sektore jakin batzuk nagusitzea ekarri du, nahiz sektore guztiek duten komunean teknologiarren erabilera handia, horixe baita teknologia parkeak sortzeko oinarritzko arrazoia.

4. Enpresak mintegietan egiten duten batez besteko egonaldia aztertu, ildo honetan erabiltzen diren irizpideak –kasua denean-, eta horien betetze maila.

Ikerketa eta Garapenari buruzko Informazio Zerbitzu Komunitarioaren arabera (CORDIS) “Enpresa Mintegiak enpresa berriei negozioa finkatu eta garatzeko babes-ingurunea ematen die, eraikin modularrak, instalakuntza partekatuak eta zuzendaritza laguntza ematen duten antolakuntzak dira”. Enpresa eta Berrikuntza Zentroetatik bereizten dira (CEI), izan ere, azken hauek “PYME berritzaileek egindako proiektuak zuzendu eta laguntzeko zerbitzu integratu zabala eskaintzen baitute”. Honenbestez, CEI hauek mintegien egiteko batzuk egiten dituzte, ez, ordea, eskusiban.

PTA salbuetsita, non 1997an Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroa, SA (CEIA) kokatu zen, gainerako parkeetan enpresak sustatzeko egiteko honek garapen txikia izan du 2001eko urtera arte; urte honetan instalatu dira PTZn IZARTEK eta Fundación BBK-Gazte Lanbidean ekimena, BBK-HABIA ekimena sustatzeko, eta PTSSn BIC-Berrilan sozietatea, baina oraindik parkean egiteko mota hau gauzatu gabe.

PTZ sortu zenean eraikin bat, 103.a alegia, enpresa-mintegi modura erabiltzeko eraiki zen eta “Eredu-eraikin” izena eman zitzaion eta egiteko hori aitortu zaio Parkearen kudeaketa txostenetan 1993ko urtera arte. Gaur egun, parkean instalatzeko enpresei ez zaie inolako betekizun berezirik eskatzen, parkeko baldintza orokorrez kanpo. Ezaugarri nagusia da modulu txiki eta guztiz amaituak erabilgarri izatea.

1996ko urtarrilaz geroztik eraikin honetan 39 sozietate ezberdin instalatu dira, eta horietatik 30 proiektu guztiz berriak ziren. 39 sozietateetatik, 13k eraikina utzi dute baina parkean presentzia izaten segitzen dute. 12 baja izan dira parkean eta beste 14k eraikinean segitzen dute. Egonaldi epeari dagokionez, gutxienez 14 hiru urte baino gehiagoz egon dira eraikinean eta hauetatik 7k, bost urte baino gehiagoko denbora daramate.

1998an BBK-Gazte Lanbidean Fundazioaren eta PTZren artean lankidetzaren hitzarmen bat izenpetu zen eta horren ondorioz, 2001eko urte hasieran abian jarri zen BBK-HABIA proiektua, Interneteko proiektuak inkubatzen eta gazteek sustatutako teknologia berrietan aditua. Honenbestez, proiektura zuzendutako PTZren lokaletan egonaldia beti enpresa sortu aurretik amaitzen da eta 4 hilabetetik beherakoa izango dela uste da.

2001eko abenduan, gainera, PTZ, BEAZ eta BBK-Gazte Lanbidean Fundazioaren arteko hitzarmena izenpetu da, 103 eraikinean IZARTEK Ekimena ezartzeko, oinarri teknologikoa duten enpresa berritzaileak inkubatzera emana.

PTAn CEIA sozietatea jarri zen 1997an; honen xede soziala jarduera berritzaileak atontzeko beharrezko zerbitzuak ematea da; sozietate hau 1988an sortu zen eta hasiera batean Gasteizko erdialdean instalatu zen. Bertako kideak PTAkoak berak dira, nahiz eta

parte hartze portzentaiak zertxobait ezberdinak diren. Sozietateak ez ditu enpresak bere aretoetan ezartzeko ofizialki onartutako arauak, baina idazte prozesuan daude.

1997 eta 2001 bitartean 58 enpresa ezarri dira CEIAn. Hauetatik 19k aretoak utzi dituzte PTAn dauden beste batzuetara aldatzeko; beste 15, parkez kanpo kokatu dira eta 2001eko abenduaren 31n 19 enpresak CEIAREN aretoetan zerraien. Gainerako 5ak likidatu egin dira.

Egonaldiari dagokionez esan behar dugu ez dagoela ofizialki mugatua baina 3 urtetik gorakoa ez izatea bultzatzen da, gehienera ere 5 urteko mugarekin. aipatu ditugun 58 enpresa horietatik, 11 hiru urtez baino gehiago egon dira enpresen zentroan eta 6k ez dute urtebeteko epea gainditu; honela, bada, batez besteko egonaldi epea 2,1 urtekoa da.

PTSSri dagokionez, esan behar da 2001eko abenduaren 31n ez zegoela parkean instalatutako inongo enpresa mintegirik, nahiz BIC-Berrilane 2001ean ekintzaileei zuzendutako prestakuntza eta aholkularitza zentro bat instalatu duen; asmoa da 2003an enpresa-inkubadore bat txertatzea.

Hiru parkeek bultzatu egin behar lukete, eta kasua balitz, indartu enpresa-mintegi eta inkubatze egitekoak, eurek gauzatuz edo, bestela, horretan aditu diren beste entitate batzuekin hitzarmenak izenpetuz; halaber, 2001ean abian jarri ziren ekintzak sustatu behar lirateke.

5. Parkeen sorreran aurreikusitako Ikerketa, Garapen edo Berrikuntza parametroak zenbat enpresek betetzen dituzten aztertu, zenbatak ez, zeintzuk diren horiek eta bertan segitzeko arrazoiak.

Enpresei parkeetan instalatzeko eskatzen zaizkien betekizun teknologikoak zehazteko sozietateen eratze erabakiak eta estatutuak eta onartzeko indarreko arauak aztertu ditugu. Kasu guztietan, eskakizunak mugatzen dira, daudenean, enpresak sektore jakin batzuetakoak izatera, estatutuetan “teknologia aurreratuen jarduerak” modura definitzen direnak eta bereziki “informatika eta elektronika”, onarpen arauetan honako sektore hauek barne hartzen dituztelarik: aeronautika, elektronika, informatika, telekomunikazioak, automatizazio industriala, optoelektronika, ingurumenaren teknologiak, gizarte ongizatearen teknologia, energia, mediko-sanitarioa, bioteknologia eta hirugarren sektore aurreratuko enpresak.

Adierazi beharra dago parkeetan instalatuak dauden teknologikotzat hartutako sektoreetakoak ez diren enpresak 25 soilik direla, hau da, %13; eta hauek parkeetan daude parke barruan zerbitzu sare bat eratzeko dagoen beharraren ondorioz.

Ondoko taulan 2001eko abenduaren 31n instalatutako enpresa kopurua zehaztuko dugu, parkeko eta jarduera sektoreko, teknologia maila Altuko edo Ertain-Altuko kalifikazioa emanaz, INEK, Eurostat eta OCDEk erabilitako sailkapenen arabera.



Teknologia maila/Sektorea	PTA	PTSS	PTZ	GUZTIRA
Intentsitate Teknologiko Altua				
Aeronautika	2	-	3	5
Elektronika	5	2	9	16
Informazio eta Komunikazioetako Teknologia	24	17	39	80
	31	19	51	101
Intentsitate Teknologiko Ertain-Altua				
Automozioa	-	-	1	1
Bioteknologia	1	-	1	2
Energia eta Ingurumena	-	1	7	8
Makina erreminta	-	1	-	1
Medikuntza	2	-	2	4
	3	2	11	16
Teknologia eta ezagutzaren beste arlo batzuk				
Hirugarren sektore aurreratua	13	2	18	33
Eragile teknologikoak	5	5	8	18
Clusterrak	-	1	3	4
Inkubazioa eta ekintzaileen prestakuntza ...	1	1	1	3
	19	9	30	58
Jarduera osagarriak	11	4	10	25
GUZTIRA	64	34	102	200

Hirugarren sektore aurreratuaren baitako diren antolamenduen artean injinerutza eta prestakuntza espezializatukoak barne hartzen dira (On-line, Unibertsitate gela). Zerbitzu aurreratuko gainerako enpresak aurreko sektoreen artean barne hartu dira edo jarduera osagarri modura.

Aztertu dugun dokumentazioan parkeek lehentasunezko modura definitutakoen artean barne hartu ez den sektore bakarra, Automozioarena da.

Orobat, clusterren artean jaso dira Paperaren clusterra eta ezagutzaren clusterra; hauek teknologia ertain-altuko edo altuko sektoreen artean sailka ez badaitezke ere, parkeen helburuetan jasota dagoen ezagutza eta teknologia eskualdatzeko egitekoa betetzen dute.

Eragile teknologikoetan 2001eko abenduaren 31n Teknologiaren Euskal Sarean bildutako entitateak barne hartu ditugu.

Osagarritzat sailkatutako enpresak teknologia mailako parametroak betetzen ez dituzten enpresa modura defini daitezke, baina parkeetan gainerako enpresei zerbitzu sarea eratzeko beharrezko elementu modura sartzen direnak. Ondoren, enpresa hauei buruzko birpasa egingo dugu:



Jarduera	PTA	PTSS	PTZ	GUZTIRA
Ostalaritza.....	1	1	3	5
Mutualitate zerbitzuak	1	-	1	2
Zerbitzu finantzarioak.....	1	1	1	3
Enpresa elkarteak.....	1	2	-	3
Prestakuntza eta Itzulpenak.....	3	-	2	5
Erreprografia.....	1	-	1	2
Bidai agentzia.....	-	-	1	1
Gertaeren antolamendua	1	-	-	1
Bestelakoak.....	2	-	1	3
TOTAL	11	4	10	25

Zerbitzu enpresa hauek parkeetan duten egiazko garrantzia balio-neurtzeko beharrezkoa da parke bakoitzean okupatzen dituzten metro karratuak gogoan hartzea.

	PTA	PTSS	PTZ	GUZTIRA
Jarduera osagarriek okupatutako m ² sabai.....	2.430	4.978	3.390	10.798
Enpresek okupatutako sabai guztiaren gaineko %	%3,1	%26,8	%1,6	%3,6
Eraikigarria den guztizkoaren gaineko %	%0,9	%5,8	%1,1	%1,6

PTSSn izan ezik, enpresa ez teknologikoen okupatutako azalera ez da adierazgarria. PTAn eta PTZn, gainera, osagarritzat kalifikatutako enpresek okupatutako azalera ostalaritzako zerbitzuetara emana dago.

Aparteko kasua da PTSS, %84 bi enpresa elkarteri eta elkarrekiko bermeko sozietate bati baitagokie.

6. Enpresen errotazio mailaren analisia: parkeetatik zenbatek alde egin duten, batez besteko errotazio horren abiadura, horien izenak eta parkeetatik alde egiteko arrazoiak.

Parkeek, sortu zirenetik eta 2001eko abenduaren 31ra arte, 244 enpresa hartu dituzte eta horietatik 44k (%18) instalakuntzak utzi dituzte hainbat arrazoi direla eta. Portzentaje hau oso antzekoa da PTAn eta PTZn, hurrenez hurren, %19 eta %21 egiten dutela; PTSSn, berriz, %6ra murrizten da.



Enpresa hauek alde egiteko arrazoiak ondokoak izan dira:

	Enpresa kopurua
Likidatuak edo likidazio prozesuan	15
Zailtasun ekonomikoak	4
Jardueraren beheraldia	4
Areto txikiagoa behar izatea	1
Areto handiagoa behar izatea	1
Komunikazioak	1
Enpresa beste batek irenstea	1
Arrazoi ezezaguna	16

7. Parkeen tamainaren balio-neurketa, beste parke nazional eta nazioarteko batzuekin alderatuta.

Parkeen tamaina balio-neurtzeko okupazioak denboran zehar izan duen bilakaera aztertu behar da. Honela, bada, PTZ moduko parke batean, EAeko handiena, gaur egun urbanizagarri modura kalifikatutako lursailen okupazioa %90etik gertu dago; PTAk, berriz, azalera urbanizagarriaren %39 baizik ez du bete eta PTSSn %50 okupatu da, 5 urteko antzinatasuna soilik izan arren. Erkidegoko parkeak Espainian tamaina handienekoen artean daude; mundu mailan eta IASPe eskuratu dizkigun datuen arabera, berriz, PTZ eta PTA tamaina handieneko parkeen multzoan sailkatuko genituzke eta PTSS ertain-baxukoetan, eraikitako azalera gogoan izanda.

a) EAeren parkeen okupazioa.

Okupazioaren bilakaerari dagokionez (eraikin propioek okupatutako azalera gehi saldutako azalera, zati azalera eraikigarria, bideak kenduta), hiru parkeek izan duten bilakaera ezberdina izan da. Aparteko aipamena merezi du Zamudiok egun bizi duen egoerak, izan ere, %90 inguruko okupazioa baitu eta are handiagoa PTZ egun alokatzeko eraikitzen ari den eraikina barne hartzen badugu. Honela, bada, 2001eko abenduaren 31n 64.682 m² lursail baizik ez daude libre, 28.983 m² sabai eraikitzeko ahalmenarekin.

Halaber, adierazgarria da PTSSren bilakaera, 5 urtetan okupazioaren %50 egin duena eta %56ra ailegatzen dena parkea eraikitzen ari den eraikina gogoan hartuta. Hemen, lurzorua azalera librea 46.822 m²koa da, 29.943 m² sabairen pareko dena.


Hazkunde eta okupaziorik txikiena PTAk izan du, %41a gaitzen ez duela, gaur egun parkea eraikitzen ari den eraikina barne hartuta.

Hala ere, parke honek azalera osoaren %41 urbanizatzeko dauka, honenbestez, urbanizatutako azaleraren gaineko okupazioa %60koa da.

Datu absolutuetan adierazita eta parkearen azalera guztiaren gainean, 307.908 m² lursail daude libre, 136.974 m² sabairen pareko dena.

Ondoko grafikoak parke bakoitzean azken urteetan urbanizagarri den azalera guztiarekiko okupatutako azaleraren bilakaera erakusten du.

OKUPAZIOAREN BILAKAERA



b) Beste autonomia erkidego batzuekiko alderaketa.

Euskal Autonomia Erkidegoa da APTEk eskuratutako informazioaren arabera, hiru teknologia parke abian dituena. Andaluziako Autonomia Erkidegoa da teknologia parkeetan eraikitzeko metro gehien dituena.

Bestalde, 2002ko iraileko APTE eta ICEXaren informazioaren arabera, 29 teknologia parke daude proiektuan; horietatik 4 Katalunian egitea aurreikusi da, beste 4 Madrilen eta 6 Andaluzian. Orobat, azpimarratu behar da jada abian dauden parkeak zabaltzeko dauden planak; horien artean aipatzekoa da Vallésekoa, izan ere, helburua industri lurrerako bereizitako azalera milioi bat metro karratu egin arte zabaltzekoa baita. Probintzi bakarreko autonomia erkidegoen artean Asturiaskoak bi teknologia parke ditu, gure autonomia erkidegoak baino tamainaz txikiagoak diren arren.

c) Nazioarteko egoera

Nazioarte mailan erreferentziazko elkarte IASP da, mundu osoko 251 teknologia parke besarkatzen dituena; horietatik 117, EEkoak dira.

Elkarte horrek emandako datuen arabera, hona hemen parkeen tamainari dagozkion garrantzitsuenak:



	Azalera osoa	% parkeak	Eraikitako azalera	% parkeak
Parke handiak.....	>1.000.000	%20	>80.000	%35
Parke ertain - handiak.....	600.000 - 1.000.000	%5	40.000 - 80.000	%14
Parke ertain - txikiak	200.000 - 600.000	%21	15.000 - 40.000	%22
Parke txikiak	<200.000	%52	< 15.000	%27

EAEko hiru parkeei dagokienez, aurrekoekin alderagarri diren azalera honako hauek dira:

	Azalera osoa	Eraikitako azalera
Zamudioko Teknologia Parkea	1.932.763	188.570
Arabako Teknologia Parkea.....	1.088.017	81.158
Donostiako Teknologia Parkea	107.027	25.102

Azalera osoari dagokionez esan behar dugu PTSSn ez direla bideak barne hartzen, parkeak lursail eraikigarriak jada urbanizatuak erosi baitzituen eta guztira 1.300.000 m² dituen poligono batean integratua baitago; hemen, gainera, PTSSk erositako azalera gain, enpresa-erabilerarako eraikitzeko beste 169.207 m² lurzoru eta bizitegitarako beste 373.766 m² barne hartzen dira.

8. Jatorrian parkeei izendatutako helburuen betetze maila, ezbetetzeen deskribapenarekin.

Parkeen helburuak lehenengo aldiz parke bakoitzeko sozietate kudeatzaileen eratzeko eskrituretan zehazten dira, oso modu orokorrean bada ere: industri ekimena eta inbertsioa eragin eta sustatzea; enpresako elementu berritzaileak unibertsitatearekin eta ikerketa munduarekin elkartzea; enpresa-jarrera berria eratzzea; lurraldeko enpresen teknologia maila hobetzea; atzerriko inbertitzaileentzat erakargarria izatea; goi teknologiako eta eduki zientifiko eta tekniko handiko jardura duten enpresak ezartzea; lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialean laguntzea; gai, enpresa eta planteamendu berrien agerpena mesedetzea; helburu hauen zehaztapen eta kuantifikazio ezak ez digu uzten horiek betetzen diren edo ez balio-neurtzen.

Parkeen helburuak modu argi, zehatz eta homogean jasotzen dituen lehenengo baliabidea 1996-1999ko Jarduera Esparru Orokorra (MGA) da, gerora jarraipena 2000-2003ko Ekonomia Sustapenerako Erakundearteko Planean (PIPE) izan duena. Plan hauen hasiera PTA eta PTSS abian jarri ziren garai bertsukoa da. Honegatik guztiagatik har ditzakegu parkeei helburuak esleitu eta horietako zenbait kuantifikatzen dituzten dokumentu ofizialtzat.

a) 1996-1999ko Jarduera Esparru Orokorra.

MGAk lehenik parkeen bi politika handiak zehazten ditu eta horietako bakoitza izaera kualitatiboa duten lau helburutan garatzen du; gerora, hainbat adierazle finkatzen ditu urtealdi bakoitzarentzat, batik bat aktiboen kudeaketari dagozkionak, nahiz baten bat gehitzen duen instalatutako enpresen garapen teknologikoaren indize bat emateko.

Ondoren, helburu hauen guztien birpasa egingo dugu eta kuantifikatu gabekoetan, parkeek egindakoa erakusten duten hainbat datu adieraziko ditugu:

a.1) Enpresa ekimen berrien garapena:

- “Parkeek enpresa ekimen berrien garapena sustatu behar dute eta ez mugatu jada finkatuak eta sendotuak dauden enpresen tokialdaketa soilik lortzera, nola eta ez den ekimen berriak babesteko”. 1996 eta 1999 urtealdien bitartean hiru parkeetan guztira 64 enpresa berri instalatu ziren eta 1.032 langileri lana eman zieten; horietatik 276 I+Dko langileak ziren. Honek instalatutako enpresa guztien %52 eta sortutako enpleguaren %50 egiten du. Enpresa berri kalifikazioa eman diogu EAEn ezarpen berriko den enpresa orori.
- “Teknologia Parkeetan enpresa traktoreen ezarpena babestuko da, inguruan goi teknologiako izaera duten enpresa kolaboratzaileak biltzeko moduan”. Alderdi hau zehaztea konplexua izan daiteke, baina nolana ere, enpresen fakturazioak enpresa horien kopuruari buruzko adierazpen bat eman diezaguke. Honela, bada, 1999ko abenduaren 31n, 14 enpresek guztira 12 milioi €ak gainditzen zituzten eta hautetatik 7, 1996 eta 1999 bitartean instalatu ziren.
- “Teknologia Parkeen garapena ez litzateke eraikin propioen alokairuaren ildotik soilik bideratu behar”. Parkeek egokiro konbinatu dituzte eraikinen alokairua lursailen eta inoiz bulegoen salmentarekin. Lau urtealdiotan zehar alokairura emandako 7.273 m² eraikinen eraikuntza amaitu da, 9.813 m² eraikitzen hasi dira eta 98.966 m² sabai eraikitzeko gaitasuna duten lursailak saldu dira.
